



FUNTSEZKO JARDUERAK

Beste enpresa baten eskutan utzi daitezkeen jarduerak dauden bezala, badaude besteen esku utzi ezin daitezkeenak: Funtsezko jarduerak. Hauek gure enpresaren muina osatzen dute, daukagun aktiborik garrantzitsuenak direlako.

Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena izango da, plastikoen truk dirua bueltatzen duen edukiontzia ekoitziko ditugulako. Biztanleria guztiaren eskura egongo da eta erabileraren inguruko informazioa emateko hitzaldiak emango ditugu. Hitzaldiak, udaletxetan, ikastetxetan, zahar egoitzetan etab emango dira.

